




# Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Asmatzaileen Masterra



Erakunde laguntzaileak / babesleak



## Aurkezpena eta helburuak

Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Askatzailea Masterrak garapenerako lankidetzaren kritiko bat bultzatzeko gai izango diren pertsonak trebatu nahi ditu. Lankidetzaren kritikoa oinarritzko premien asebetetzera bideratutako politiketik, gizarte justizia bultzatzeko xedea duten subjektu politikoak ahalduzera bideratuko da. Horretarako, ikasleak ideia eta praktika alternatiboekin ezagutzan trebatu nahi dira, horiek gizarte eraldaketara zuzentzen diren ekintza kolektiboetan parte hartzeko beharrezkoak dituzten zenbait baliabide teoriko, balore eta abilezi bereganatuz.

Egun krisi ugarien testuingurua pairatzen dugu. Krisi horiek izaera globalizatua duen, merkatuaren interesak pertsonen eta herrien eskubideen gainetik jartzen dituen eta desigualdadeak areagotzen dituen sistema ekonomiko, politiko, sozial eta kultural baten emaitza dira. Sistema hori ezbaian jartzea lehen urratsa da beste mundu baten oinarriak ipintzeko, pertsonak eta aterpe ematen digun planeta zainduko dituen mundu bidezkoagoa. Gainera, premiazko zeregina dugu, baldin eta aurrera egin nahi badugu gizarte justizian, ekitatean, elkartasunean eta iraunkortasunean oinarrituko den etorkizun baterantz.

Helburu handinahi honek erronka bat ezartzen digu: hots, bultzada ematea hezkuntza izaerako sozializazio kritiko zabal bati, egungo testuingurua bere konplexutasun osoan ulertzeko eta aldi berean, baztertuen dauden pertsona eta kolektiboak ahalduzko balioko dizkiguten ezagutza eta praktika berriak sortzeko.

## Sarrera profila

Graduko edo baliokidea den titulazioa (lizentziatura, ingenieritza, arkitektura) edo diplomatura

### Irteera profesionalak

Gobernuz Kanpoko Erakundeak, administrazio publikoak, hezkuntza erakundeak (formalak eta ez-formalak), elkarteak eta gizarte mugimenduak.

### Oinarritzko informazioa

<b>Eskolak emateko lekua:</b>	<b>Irakaskuntza mota:</b>
Campus Birtuala	Birtuala
<b>Hizkuntza:</b>	<b>Prezioa:</b>
Gaztelania	2.940 €
<b>Egutegia:</b>	<b>Eskola orduak / iraupena:</b>
Urritik azarora (13 hilabete)	60 erts / 1 ikasturte
<b>Nahitaezko irakasgaiak:</b>	<b>Hautazko gaiak</b>
54 ECTS kreditu	0 ECTS kreditu
<b>Titulu Amaierako Proiektuak / Lanak:</b>	
6 ECTS kreditu	

## Prestakuntza programa

Nahitaezkoak
Globalizazio neoliberala ikuspuntu ekonomiko batetik (6 ECTS)
Garapena eta lankidetzaren gaineko eztabaidak (6 ECTS)
Genero ikuspuntua lankidetzan (4 ECTS)
Trantsizionaren diskurtsoak (4 ECTS)
Nazioarteko lankidetzaren agente eta politikak (4 ECTS)
Eraldaketa sozialerako parte-hartzea (5 ECTS)
Garapenerako hezkuntzatik hezkuntza askatzailearenganako bidea (5 ECTS)
Gizarte-eraldaketerako teknologiak eta STEAM hezkuntza hezkidetzaren ikuspegitik (4 ECTS)
Hezkuntza askatzailearen didaktika kritikoa (5 ECTS)
Hezkuntzako ekintza askatzaileerako espazioak (I) (3 ECTS)
Hezkuntzako ekintza askatzaileerako espazioak (II) (5 ECTS)
Hezkuntzako ekintza askatzaileerako espazioak (III) (3 ECTS)
Master amaierako lana (6 ECTS)

## Harremanetarako

### Zuzendariak:

Elena Martínez Tola

☎ 946 013 624 ✉ [elena.martineztola@ehu.eus](mailto:elena.martineztola@ehu.eus)

Unai Villena Camarero

☎ 946 014 064 ✉ [unai.villena@ehu.eus](mailto:unai.villena@ehu.eus)

**Idazkaria:** Estíbaliz Madrazo

☎ 946 017 131 ✉ [estibaliz\\_madrazo001@ehu.eus](mailto:estibaliz_madrazo001@ehu.eus)